

## KALEJIRAN

### EHTeren 2008ko egutegia

Aurten ere, urteroko ohiturari jarraiki, **2008ari hasiera** beroa emateko, EHTek egutegia du salgai, **3 euroren truk**. Kartelgintza ardatz hartuta diseinatu da egutegia.

### Xabier Etxanizek irabazi du Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XVI. Txapelketa

Aizpurutxoko soinu-joleak laugarren urtez jarraian lortu du txapela. Xabier Etxanizek bikote berria izan zuen ondoan, Oroitz Unsain pandero-jotzaile tolosarra, hain zuzen. Orotara, 18 urtez azpikoen Euskal Herriko txapelketako finalean zortzi bikote jardun ziren: sei gipuzkoar, eta bizkaitar eta arabar bikote bana elkartu ziren.



Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Boletina

# ALTZA PORRU!

2007ko abendua / 27.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28  
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkarte  
L.G. : SS-418/01

## ZESUMA

### Durangoko Azokan, trikitixaren erritmora

Bizkaiko Trikitixa Elkarte eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarte Durangoko Azokan izan dira. EHTe **zazpigarren urtez jarraian** hurbildu da Durangora. Batetik, hainbat produktu erakutsi eta saltzeko aukera polita da, eta, bestetik, jende-uholdearen artean, harreman berriak sortzeko abaguneak ere izaten dira.

Aurten ere **bazkide berriak** egin dira, eta, salmentei dagokionez, Xabi Aburruzagaren disko berria gailendu da. Hain zuzen ere, Durangoko azokarako iritsi da puntu-puntuan, eta harrera ona izan du. Faborez01 diskoa ere poliki saldu da, eta, urteroko legeari jarraiki, egutegiak arrakasta handia izan du bisitarien artean.

Esandakoari jarraiki, oro har, **azken nobedadeek** izan dute harrera beroena, eta horien artean, diskoek. Dirudienez, jendeak diskoak errazago erosten ditu, partitura edo liburu-diskoaren aldean.

Bestalde, Ierro hauen bidez, Durangoko Azokan **txandak egiten lan egin duzen guztioi eskerrak** ematea besterik ez dagokigu.

## GALBAHEA

### Gose taldea:

"Arrasateko Shot! estudioan grabatu dugu diskoa. Estudioa, gure etxea bezalakoa da, eta bertan, ordu piloa igarotzen dugu. Gainera, gure musika estiloa lantzen joan behar da pixkanaka. Guk ez dugu rock taldeek jarraitzen duten prozesua jarraitzen. Izan ere, abestiak forma hartzen joaten dira grabatzen zozazen heinean. Lehenik eta behin, kantua grabatzen dugu, eta ondoren, nahasketa egiteko ordua etortzen da. Diskoa prestatzen hasten garenean, bi atal bereizten ditugu: batetik, kantua sortu eta grabatu. Ondoren, zuzenekoak prestatzen hasten gara, dena ondo ateratzeko jendearen aurrean." (Deia, 2007-12-11)

1990. hamarkadako eta 2000. urte-tik aurrerako diskoetako trikiti-testuak sarean ditugu jada. [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com) helbideari atal berri bat gehitu zaio, 785 trikiti-testurekin: [www.trikimailua.com/hitzak](http://www.trikimailua.com/hitzak). Guztira 82 diskoren hustuketa egin da.

**Kantua transkribatzeko** irizpideari dagokionez, berriz, liburuxkadun CD edo diskoetako letrei erreparatu zaie. Alegia, kantaturik ageri diren eta liburuxkan adierazten diren abestien letrak baino ez dira jaso.

Lehenik eta behin, **EHTeko materiala** hartu da oinarri. Material hori bi modu nagusitan sailkatu da. Batetik, diskoaren arabera, eta, bestetik, kantua izenaren arabera; alfabetoari jarraiki. Horretaz gain, bilatzaile bat ere jarri da martxan, eta disko-egileetan barna egiten du bilaketa.

Hortik aurrera, abestien **letrak oso erraz eskura** daitzke. Gainera, letragilea nor den ere jakin ahal izango dugu, informazioa era argian ageri baita. Kantua gainean klikatuz gero, kantu osoaren letra agertzen da, eta diskoaren gainean zapalduz gero,



berriz, disko horretan letra duten kantu guztien zerrenda eskuratuko dugu. Azkenik, berriz ere diskoaren gainean klikatuz gero, **www.trikitixa.net** loturara bidaltzen gaitu zuzenean, eta diskoaren eduki osoa ikusteko aukera ematen digu. Esan bezala, gustuko trikiti-doinuak ez ezik, gustuko trikiti-testuak non eskuratu ere badugu [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com) helbidean. Hartara, trikiti-doinuen harira, kantu eta dantza egiteko moduan izango gara.

## FABOREZ DISKOAREN AURKEZPENA

Faborez 1 diskoan Izer eta Alabier, Estanga anai-arrebak, Jon Ostolaza eta Raket Pujana, eta Agurtzane eta Ion Elustondo dira musikariak. Erromeriaz erromeria dabiltzan trikitilariak, baina oraindik diskorik argitaratu ez dutenak.

Disko honen aurkezpena dela eta, abenduaren 29an, Aristerrazun, makina bat erromeriaren habian, joko dute arestian aipatutako trikitilari hauek; bilduma baten abiapuntu den diskoaren aurkezpenean. Kasu honetan, urte bukaerako Inoxente Eguneko afaria eta Faborez diskoaren aurkezpena egun berean egingo dira. Giro polita sortzeko aitzakiarik ez, beraz.

Afaritara etorri nahi duenak, 943 832828 telefonora deitu, edo, bestela, berriz, trikitixa@trikitixa.net helbidera idatzi. 80 lagunentzako tokia dago eta dagoeneko jende asko apuntatu da, beraz, etortzeko asmoa duzuenok azkar ibili beharko duzue.



## XABI ABURRUZAGAREN DISKO BERRIA

Xabier Aburruzagaren **bakarkako lehen lanak** ere ikusi du argia. Dударik ez, trikitixazaleentzako lan polita dela aitortu du egileak, baina hain zale ez direnentzako ere lan gustagarria izan daitekeela gaineratu du, diskoan trikitixa beste oinarritzko hainbat instrumenturekin nahasteko ahalegina egin baitu. Hain zuzen ere, bateria, gitarrak, baxua, perkusioak eta biolina entzun daitezke, besteren artean.

**2007an grabatutako lana** da, egilearen beraren estudioan. Pixkanaka-pixkanaka jardun du kantuak moldatu eta grabatzen. Grabatu ahala, emaitza entzun eta horren arabera aldaketak egiteko aukera izan du, eta, horregatik, denbora asko behar izan du diskoa taxutu eta argitaratzeko. Gainera, lan egiteko modu horren ondorioz, ideia berriak landu ahal izan ditu. Liburua egitea baino lan nekezagoa izan dela argi utzi digu Aburruzagak.

**Rufino Arrola eta Bizkaiko trikitilarien piezak, Bizkaiko dantzen errepertorioa eta Xabier Aburruzagak berak konposatutako kantu bat** dira diskoaren ardatz. Lan hau egiteko, betiko lagunekin bildu da Aburruzaga. Taldekide dituen Irkus Ansotegi, Alberto Rodriguez, Igor Peña, eta Igor Telletxearekin, hain juxtu. Soinu-teknikari lanetan Alberto Rodriguez aritu da. Beste hainbat laguntzaile ere aritu dira, ordea, tartean: Amaia Oreja, Leturia, Mikel Markez, Xabi Zeberio, Unai Arteaga, Raket Pujana, Koldo Iturbe, Fredi Paia, Iñaki Aurrekoetxea eta Meabe-Narbaiza.

Lan honen ondotik, **zuzeneko aurkezpenak** datoz, eta **plaza batzuk** egiteko asmoa ere bai. Beraz, Rufino Arrolari egindako omenaldi txiki hau ez da diskoaren argitaratzearekin bukatzen. Jarrai dezala trikitiaren oihartzunak.



## GOSE TALDEAREN BIGARREN DISKOA

Gose taldearen bigarren diskoak lehenaren bidea urratu eta sendotu baino ez du egiten. Bigarren lana lasaitasunez egin bada ere, zirrara berezi batek bultzatutako lana da. Gose taldeari gauza asko gertatu zaizkio, Gose taldeak gauza asko sorrarazi ditu eta bigarren diskoa horren guztiaren isla baino ez da.

Trikitia aitzakia hartu, eta dena hankaz gora jartzera dator Gose; beren melodiak sortzeko erraztasunari, abestiak egiteko ohiturari, eta elektronikaren eta euskal kulturaren uztarketari esker. Kantuaren dotorezia helmuga, tradizioa hautsi egin nahi dute, estrategiak landu, lanari serio ekin eta etengabe hausnartu. Nork? Gose taldeak, nork bestela.



## JAIALDIAREN NONDIK NORAKOAK: GETXOTIK DONOSTIARA



Simone Bottasso eta 21 BOUTONSen emanaldia, Algortako Pipers tabernan.



Ospas eta Janire

## GETXO ABIAPUNTU

Nazioarteko Trikitixa Jaialdiaren **VI. edizio** hau Getxon ospatu da, bigarren jarraian. Jaialdi honetako partaideak **Getxotik bertatik, Bizkaia aldetik zein atzeritik** hurbildu dira, eta iaz baino ikusle gehiago ekarri dituzte Getxoko "Getxo Antzokira"; zaleei behar bezalako ikusgarritasuna eta gozamena eskainiz.

Hala ere, jaialdiarekin soilik konformatu ez, eta ikusle ugari **Algortako Pipers taberna irlandarrean** antolaturiko trikisesionera animatu ziren antzokiko ikuskizuna bukatu ostean. Bertan, giro lasai eta informalagoaren babesean, jaialdiko artistek eta parte hartzera animatu ziren beste hainbat trikitilari beren musika eskaini zuten. Era berean, jaialdian parte hartutako musikariek euren artean elkartu eta **bat-bateko saiotxoak** eskaini zituzten, inprobisazioari leku eginez. Honen adibide, Simone Bottasso eta 21 Boutonsen emanalditxoa (argazkian).

## KURSAAL HELMUGA

Kursaalgo ganbera aretoa jendez bete zen, Nazioarteko Trikitixa Jaialdiaren aitzakian. Guztira **420 bat lagun** bildu ziren, eta afaritara ere lagun-talde polita arriatu zen, 67 lagun, hain juxtu.

Jaialdian giro beroa nagusitu zen hasiera-hasieratik. Soinu diatonikoa, kromatikoa, biolina, gitarra, melodia ugari, bandoneoia... entzun ahal izan ziren. Saio gustagarria gertatu zen bertan bildutakoentzat.

Bi ordu eta 10 minutuko saioa izan zen. Aipagarriak izan ziren, besteak beste, Simone Bottasso italiar gaztearen harritzeko moduko birtuosismoa eta Mexiko Berriko Keppeler eta McLeari bikote beteroaren umorea, denak txaloka jartzera. Jexux Aranburuk bandoneoiarekin egindako saioak ere zur eta lur utzi zuen bertaratutako jende andana.

**Jaialdiaren ondotik**, afal ondorengo **giroa ezin hobea** izan zen. Beltran, Astiasaran eta Etxeberritxok ekin zioten saioari, eta jarraian, beste kide batzuek jarraitu zuten, giroari eutsiz.

**Datorren urteari begira**, data jarrita dago, **azaroaren 22a**. Izan ere, San Martin inguruan soinu-jotze dezente izaten da bazterretan, eta, beraz, jaialdia egiteko, ez da datarik aproposena. Beraz, jakinaren gainean, gorde egun hau Kursaal eta trikitixa eskutik helduta dantzan jartzeko.



Mexiko Berriko Ken Keppeler



Jaialdiaren amaiera